

# Uxue Iruretagoiena Andres

**A** maila • 1 aipamena

Nire izena Uxue Iruretagoiena Andres da eta Zaldibia izenez ezagutzen den Goierriko herri txiki batean bizi naiz 18 urte nituenetik. Laster, Jakintza Ikastola atzean utzi eta bide ezberdin bati ekingo diot unibertsitatean, garai berri bati hasiera emanez.

Zaletasun ugari ditut, hala nola, musika, kirola, artea eta nola ez idaztea. Betidanik izan dut gustuko azken hori, hizkiekin jolastuz hamaika istorio sortzeko aukera eduki dezakedalako. Oraingo honetan, benetan kezkarria den gai bati heldu nahi izan diot, klima aldaketari hain zuzen ere. Nire sei bertsoek Lurraren egungo egoera azaldu nahi dute, eta bide batez, gizakion ekintzak salatuz.



## ALDAKETEN GARAIA

Azkenaldiko berri guztiak  
errepikakorrak dira,  
brexit, katalan, ta Pedro Sanchez  
kontu berak jira-bira.  
Bada beste bat bazter orotan  
atera dena argira,  
telebista nahiz irratietan  
gaur edonon ageri da,  
denen gainetik gailenduz eta  
sortuz denen ikusmira.

Klima aldaketak iritzi ugari  
sortu ditu gizartean,  
beldur, zalantzak azaleratuz  
guztiongan bat-batean.  
Baina nahiz eta arazoa den  
gure begien aurrean,  
iruzur soil bat besterik ez da  
jende askoren ustean.  
Noiz sinetsiko ote digute,  
lurra guztiz suntsitzean?

Faktore ugari kaltetzen dute  
gure planeta maitea,  
ta rankingean gizakiak du  
lehen postua betea.  
Garai batean amalurrak zon  
Lurran gaineko agintea,  
ta gure helburu nagusia zen  
mirestu nahiz babestea,  
baina oraingo xedea dugu  
kalteak eragitea.

Hiri, herriak laino gris beltzen  
azpian agertzen dira,  
ta orain galdu dute paisaiek  
antzinan zuten dirdira.  
Poloak ia bihurtu dira  
pinguinoentzat aintzira,  
gelditu ezean gu ere hala,  
laster goaz ur azpira,  
konponbideak bilatu eta  
ez zaitez egon begira.

Greba, protestak ugari dira  
kalean azkenaldian  
eta gazteen parte hartzea  
gelditu da agerian.  
Greta txikiak bere borroka  
hasi zuen aspaldian,  
ta jarraitzale mordoa lortu  
du bai denbora gutxian!  
Bere indarra erakutsi du  
izan duen ausardian.

Anitz espezie desagertuta  
beste hainbat arriskuan,  
seigarrena da estinzio hau  
gertatzen dena munduan.  
Baina oraingo kasua ez da  
aurreko bosten moduan,  
meteorito ta erupzioak  
ez daudelako kontuan,  
bizidun guztik akabatuko  
ditugu ba segituan?